

Emakumearen Diskriminazioaren aurkako Batzorderako Txostena

2026ko urtarrilak 30

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Txostenaren ikerketa objektua
3. Tortura eta emakumeak: euskal testuinguruan emakumearen aurkako torturak izan dituen berezitasun eta ondorioak
4. Iratxe Sorzabalen kasua: Auzitegiak torturak aitortu arren, ondoriorik ez.
 - 4.1.- Iratxe Sorzabal Díezen atxiloteta eta tortura salaketak. Babesgabetasunaren eta diskriminazioaren kasu paradigmaticoa.
 - 4.2.- Emakumearen aurkako Diskriminazio Guztiak Ezabatzeko Hitzarmenaren urraketa, Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-tortura jasan duten emakumeen kasuan.
5. Gomendioak
6. CEDAWari zuzendutako eskaerak

1. Sarrera

Dokumentu honen sinatzailea den elkarte Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokia da.



Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokia – GEBehatokia, Giza Eskubideen elkarte zeinak bere ibilbidea 2001. urtean hasi zuen. Bere jarduera Estatu indarkeriaren ondorioz sortutako giza eskubideen urrapenen jarraipenean, azterketan eta salaketan oinarritzen da. Honekin batera, Estatu biktimei egia eta justizia lortzeko bidean aholkularitza eta babesa eskaintzen die, prozesu judizialeetan esku-hartzearekin batera. Aurrera eramandako ekintza nahiz lortutako emaitzei dagokionean, hauen hedapena du helburu. Ez hori bakarrik, horri lotuta giza eskubideen alorrean profesionalak direnei formakuntza eta hezkuntza eskaintzen du.

2. Txostenaren ikerketa objektua

Txosten honen xedea espainiar Estatuan oinraindik ezarri ez diren neurriak agerian jartzea da, zehazki, giza eskubideen alorrekoak, eta bereziki, berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arlokoak.

Emakumeen diskriminazioari aurre egiteko Espainiak berretsitako hitzarmenen artean Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Ezabatze Batzordearena dago, 1980an sinatu eta lau urte geroago berretsi zena. Hitzarmenaz gain, gomendioen atalean garatuko dugun bezala, Nazioarteko Hitzarmen eta barne araudiaren bidez, Espainiak arlo horretan beste konpromiso batzuk hartu ditu. Zentzu horretan, txosten honen helburua euskal emakumeek jasandako tortura aitortzea da. Aldi demokratikoan eta oraintsu arte erabilia izan den tortura eta tortura sexuala.

Euskal testuinguruan estatuko segurtasun gorputz eta indarrek tortura erabili izana **ez** da gai berria, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak espainiar Estatua euskaldunen aurkako tortura delituak egikaritzeagatik 11 aldiz zigortu du, batez ere kasu horiek ez ikertzeagatik¹. Honetaz gain, asko dira Giza eskubideen defentsarako mekanismo ezberdinek egindako gomendioak, ospe handiko elkarteek egin ditzute (Amnistia Internazionalak adibidez), baita Nazio Batuetako erakunde ezberdinek ere. Nazio Batuen kasuan, Giza Eskubideen Batzordeak, Torturaren Aurkako batzordeak eta Errelatore bereziek. Bestalde, espainiar Estatuari egindako azterketei dagokionean, Aldizko Azterketa Unibetsala dugu, berriki egindako azken zikloarekin. Baita Giza Eskubideen Batzordeak eta Torturaren Aurkako Batzordeak torturatutako euskaldunei buruz argitaratutako komunikazioak: Kepa Urra Guridiren², Encarnación Blanco Abaden³, Orkatx Gallastegi Suduperen⁴, Maria Cruz Achaval Puertasen⁵, Gorka Lupiañez Mintegiren⁶ eta Raul Fuentes Villotaren kasuak⁷, azken hau aurreko urtekoa izanik.

¹ Affaire Martinez Sala et autres c. Espagne; Affaire San Argimiro Isasa c. Espagne; Affaire Beristain Ukar c. Espagne; Affaire Otamendi Egiguren c. Espagne; Affaire Ataun Rojo c. Espagne; Affaire Etxeberria Caballero c. Espagne; Affaire Arratibel Garciandia c. Espagne; Affaire Beortegui Martinez c. Espagne; Affaire Portu Juanenea et Sarasola Yarzabal c. Espagne; Affaire Atristain Gorosabel c. Espagne.

² <https://juris.ohchr.org/casedetails/133/en-US>

³ <https://juris.ohchr.org/casedetails/246/en-US>

⁴ Complaint No. 453/2011 (Gallastegi v. Spain)

⁵ <https://juris.ohchr.org/casedetails/1317/en-US>

⁶ <https://juris.ohchr.org/casedetails/2919/en-US>

⁷ Decision adopted by the Committee under article 22 of the Convention, concerning communication No. 1108/2021

Horrez gain, Espainiako Estatuak torturaren, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta emakumeen aurkako diskriminazioaren inguruan duen konpromiso falta islatzen duten beste arau eta ebazpen asko daude. Gainera, 5.379 pertsona torturatu dituztela egiaztatzen duen txostena dago, EHU/EHuko unibertsitatean burutu zena⁸.

Txosten honek, beraz, Espainiako Gobernuaren gabezietan sakonduko du, torturatutako emakumeek jasandako indarkeria matxista, tortura sexuala eta diskriminazioa jorratuz, baita jasan dituzten ondorio espezifikoak landuz ere.

Txosten honen objektua behar bezala aztertzeko, emakume torturatuen egoera begirada feminista batetik aztertu duen lan batetik abiatuko gara. Zehazki, Olatz Dañobeitia Ceballos Euskal Unibertsitate Publikoko Doktorearen 2024ko doktore tesia hartuko dugu oinarritzat: "Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat. 90eko hamarkadako Ezker Abertzaleko emakumeen kasua" ⁹.

3. Tortura eta emakumeak: euskal testuinguruan emakumearen aurkako torturak izan dituen berezitasun eta ondorioak

Tortura berariaz erabili izan da emakumeak torturatu izan direnean. Emakumeen aurkako diskriminazio historikoa eta indarkeria matxista Euskal Herrian eman diren tortura kasuetan islatu da ere. Gatazketan emakumeek parte hartze aktiboa duten arren, gatazkak gizonen irudiarekin lotzeko joera zabalduta dago (gerretan, estatu diktatorialetako erresistentzia antolatuan, Estatu demokratikoetako desobedientzia zibilean, besteak bestea). Horrenbestez, gizartea ez du emakumeengandik horrelako jarrerarik espero. Emakumeekiko zeuden espektatiba horiek Segurtasun Indarrek egikaritutako torturan ondorioak izan zituen, genero rolek berekin dakartzaten zapalkuntzak areagotu zituelako.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago tortura, eta honen barruan, tortura-sexuala, emakumeek nahiz gizonak bizi zutela. Hori hala bada ere, genero bakoitzean lortu nahi zen helburua desberdina zen:

- 1- Emakumeen aurka egikaritutako torturak, beraiek kalteatzeaz gain, parte diren komunitatea kaltetzea dute helburu, bereziki, komunitate horretako gizonak.

⁸ Etxebarrieta, Francisco; Beristain, Carlos eta Pego, Laura (2017). *Informe de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación del Gobierno Vasco.

⁹ Dañobeitia Ceballos, O. (2024). *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat. 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua*. EHU. ADDI. 210. or. <http://hdl.handle.net/10810/68567>

- 2- Tortura sexuala gizonen aurka gauzatzen zenean, helburua haiek kosifikatzea eta emakumetzea zen, emakume bezala sexualki torturatzea eta modu horretan "bere gizontasuna" erasotzea. Horretaz gain, heburua beraien proiektu politikoa eta komunitatea gutxiestea zen¹⁰, baita Estatu bat berrestea ere, bere nagusitasuna azpimarratuz.

Zehazki eta modu honetan, esan dezakegu euskal emakumeek jasandako torturaren kasuan bi helburu bilatzen zirela, biak rol sexisten iruditeriarekin:

- 1- Lehen helburua emakumei bideratuta egonog litzateke, torturatuak zein euren komunitateko emakumeak izutzen saiatuz eta modu honetan euren aktibismo politikoari uko eginez. Emakumeak diskriminatzea bilatzen zen, parte-hartze politikotik aldenduz, eta etxera eta zaintzara zokoratuz.
- 2- Bigarrena atxilotutako emakumearen komunitateko gizoni bideratutako mezuan datza. Emakumea atxilotu eta torturatzea "beren emakumeen" gorputzetan izugarrikeriak egiteko gaitasuna erakusteko baliatzen zuten, hain zuzen, "gizonetik gizonera" bidalitako mezu gisa.

Bestalde, Julie Mostov (2000) autoreak dionez, gatazka testuinguruetan, indarkeria sexuala estrategia militar bilakatzen da. Torturaren helburua nazioa edo komunitate kulturala apurtzea denez, bortxaketak esanahi politikoa du: *"bortxaketak mugen inbasioa eta maskulinitatearen bortxaketa dira, ondorioz, nazioaren subiranotasuna eta autonomía bortxatzea esan nahi du"*¹¹.

Euskal testuinguruan emakumeen aurka gauzatutako torturaren kasuan eta lehen aipatutako EHUren txostenan baieztatzen den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan (eta Nafarroako Erkidegoan datuak antzekoak dira), tortura kasuen %22,3tan indarkeria sexuala modu ezberdinetan erabili da. Beraz, emakumeen aurkako torturaren kasuan,

¹⁰ Aitzitik, hau ez da soilik Euskal Gatazkaren testuinguruan gertatu. Mundu mailan eman diren sexu-indarkeria praktika politikoek, emakumeen kasuan komunitatea kaltetzea izan dute helburu, bereziki komunitateko gizonak. Hala diote aditu ezberdinek: Taylor, Diana (1997). *Disappearing Acts. Spectacles of Gender and Nationalism in Argentina's «Dirty War»*. Duke University Press. Nusair, Isis (2008). *Gendered, Racialized and Sexualized Torture at Abu Ghraib*. In Robin L. Riley, Chandra Talpade Mohanty eta Minnie Bruce Pratt (ed.), *Feminism and War: U.S. alderatzea Imperialism* (179-193. or.). Zed Books. Zurbriggen, Eileen L. (2008). *Sexualized Torture and Abuse at Abu Ghraib Prison: Feminist Psychological Analyses. Feminism & Psychology*, 18, 3, 301-320 or.

¹¹ Mostov, Julie (2000) "Sexing the Nation/Desexing the Body: Politics of National Identity in the Former Yugoslavia" in Tamar Mayer (ed.) *Gender Ironies and Nationalism: Sexing the Nation*, 89-112. orriak. New York: Routledge.

indarkeria handiagoa izan zen, torturaren indarkeriari indarkeria sexualaren erabilera gehitzen baitzitzaion¹²:

- Atxilotzean biluzik egon dira (%18)
- Sexu-iraunak izan dizute (%10,3)
- Genitaletan golpeak jasan dizute (%9,7)
- Ukitzeak (%5,4)
- Sexu-oraganoetan elektrodoak sartu dizkiete (%1,4)

Txostenean, gainera, zifra hori handiagoa izan daitekeela adierazi dute. Teknikek emakumeetan eta gizonetan duten aplikazio bereizia erakusten dute ere:

Emakumeek, gizonekin alderatuta, bultzada eta ile-tiratze gehiago jasan zituzten, «plantoia» gehiago erabili zuten, poltsarekin asfixia lehor gehiago, sexu-indarkeria mota gehiago jasan zituzten (biluztasun behartu gehiago, ukitze gehiago, hitzezko umiliazio gehiago eta beste sexu-indarkeria mota batzuk), atxilotze-baldintza okerragoak (etengabeko zaraten eraginpean gehiago, garbitasun-gabeziak espezioan)

Errealitate hori berresten duten testigantza asko daude. Adibidez¹³:

"tentsioarekin hilekoa jaitsi zitzaidan, eta ez zidaten uzten aldatzen; beraz, galtza guztiak odolez beteta nituen. Biluztera behartu ninduten, zutik zentroan eta hiek aurrean, eta tampaxa kendu eta ahon sartzerara behartu ninduten. Mahi baten amaieran flexioak egin behar nituen, eta, gero, mahi horretan bertan, etzan, hankak altxatu eta erratz-makila bat sartu zidaten baginatik gora. Edo kokoriko nengoenean, polizia batek ukituak egiten zizkidan gorputz osoan".

Beraz, emakumeen kasuan sexu-indarkeria bortitzagoa izan zen, eta hainbat adituk adierazten dutenaren arabera, horrek berariazko berezitasunak izan zituen¹⁴:

- 1) Eremu publiko/politikoan sartuta dagoen emakumearen irudikapen sexualizatuak, umiliagarriak, erridikuluak edo lizunak komunikabideetan, hainbat baliabide teknologiko erabiliz (sare sozialak, prentsa...).
- 2) Galdeketetan eta atxilotketetan biluzarazi eta horrela egon beharra.

¹² Etxebarrieta, Francisco; Beristain, Carlos eta Pego, Laura (2017). *Informe de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación del Gobierno Vasco.

¹³ Testigantzak eman zituzten biktimen izen-abizenak ez dira identifikatu, baina haien baimena dugu Batzordeari helarazteko, eskatu ezker.

¹⁴ Dañobeitia Ceballos, O. (2024). *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat. 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua*. EHU. ADDI. 210. or. <http://hdl.handle.net/10810/68567>

- 3) Patriarkatuak emakume-generoari egozten dizkion lanak egin beharra (garbitzea, arropa garbiltzea, eta abar) modu behartuan eta iraingarrian.
- 4) Isekak eta hitzezko erasoak, sexu-edukiarekin.
- 5) Jarrera lizunak edo iraingarriak hartatzera derrigortzea.
- 6) Generoaren arabera deskalifikazioekin loturiko irainak, sexuari, gorputzari, amatasunari edo funtzio ugaltzaileari dagozkionak.
- 7) Bere orientazio sexuala zalantzan jartzea.
- 8) Bere feministateari edo maskulinitateari buruzko isekak.
- 9) Pertsona edo senideak bortxatzeko mehatxuak.
- 10) Mehatxuak, etorkizunean plazera galtzeko aukeraren edo ugaltzeko aukeraren (edo ziurtasunaren) gainean.
- 11) Atxilotutako edo familiako beste pertsona batzuek sexu-tortura ikusi, entzun edo hartan aktiboki parte hartzea derrigortzea, behartutako intzestua barne.
- 12) Gorputzeko edozein ataletan ukituak egitea.
- 13) Bortxaketa-simulazioak.
- 14) Jorronte elektrikoa aplikatzea genitaletan edo eremu erogenoetan.
- 15) Uzkitik edo baginatik bortxatzea.

Torturatutako emakumeek jasandakoa, Connell (1998)¹⁵ adituak aztertutako torturaren genero erregimenarekin lotuta dago, honako ezaugarriak aintzat hartuz:

- 1) Emakumeen izaera militantea (parte-hartze politikoa) ukatzea eta moztea.
- 2) Bigarren mailako pertsonatzat tratatuak dira: benetako aktibistaren, gizonaren, laguntzaile, emaztegai edo inozo engainatu gisa.
- 3) Puta gisa irakurtzen dira, genero-eredu hegemonikoetatik ateratze hutsagatik, aukeratzeko eta jarduteko gaitasuna duen emakume batek eragiten duen beldurra eta mehatxua agerian utziz. Beraz, emakumeekiko zeuden itxaropenak ez betetzeagatik zigortzen dira.
- 4) Objektu gisa tratatzen dira, sexualizatuak dira.
- 5) Izaki desatseginak, emakume itsusiak, arrotzak, zikinak, zaborra, zerbait ulertezina edo izan ezin dena izatera mugatzen dira. Mespretxatuak dira, eta haiengana mespretxuz zuzentzen dira.

Emakumeek jasandako torturaren helburua, gainera, beste emakumeengan beldurra eragitea da. Tortura pairatu zuen biktima batek horrela adierazten zuen eskainitako testigantzan. Atxiloteta inkomunikatuan bere aurka erabilitako aparteko sexu-indarkeriarengatik oso ezaguna izan zen kasua da: "Gero ikusi nuen nola erabili

¹⁵ Connell, Robert W. (1998). Making Gendered People: Bodies, Identities, Sexualities. In Myra Marx Ferree, Judith Lorber eta Beth B. Hess (ed.), *Revisioning Gender*, Oaks, Sage (449-471. or.). Altamira Press.

zuten nire kasua beste emakume batzuetan izua handiagotzeko; hori oso gogorra egiten zait”

Jasotako torturen testigantza ugariak hemen baieztatzen ari garena islatzen dute, hots, tortura, tortura sexuala eta bere ondorioak:

- 1- Gloria del Bosque, 1973an eta 1976ean torturatua: *"karta-jokora jolasarazten ninduten. Makila ateratzen bazen, buruan kolpatzen ninduten luzaroan. Beste bat ireteten bazen, gelditu gabe felxioak egitera 10.000 arte, eta gero atzera zerora itzuli, guzti hori hiltzeko mehatxu etengabeen artean"*
- 2- Alba, beste emakume torturatu batek, *kiebre* edo haustura sentitu zuen momentua deskribatzen du: *"Honela deskribatuko nuke: pertsona izateari uzten diozu, zure buruari jada ez diozu axola, jada ez duzu ezer kontrolatzen, ezer ez, ezer ez, ezer ez... ezta zure pentsamendua, ezta zure gorputza, ezta ezer. Nik badakit hausteko unea ondo kontatzen (...). Haiek oso ondo dakite noiz iristen den une hori. Galdeketan egiten duten exekuzio-simulakroaren antzekoa da. Edo, gero, bada beste gauza bat, nik haiekin hitz egiten dut, ederki gogoratzen naiz hitz egiten dugunaz, esan zuteaz. Eta han ni, lankideekin egongo banintz bezala hitz egiten, eta pikoletoak ziren (...)* (picoletto Guardia Zibileko agenteak, polizia kidego militarra, ezagutzen diren terminoetako bat da). Ni hautsi egin nintzen, eta lekukotasunak irakurrita, jendeak porrot egiten duela kusten duzu, *kiebrea* ikusten duzu, nahiz eta gero ikusi nahi ez izan; izan ere, zaila da zu hautsi zaituztela onartzea.
- 3- Ainarak honela deskribatzen du torturatzen zutenean sentitu zuena: *"Une horretan ikusi nuen ezin nuela gehiago, dena berdin zitzaidan"*.
- 4- Encarnación Blancoren kasuan, zeinaren kasua Torturaren Aurkako Batzordera iritsi zen, honela kontatzen du: *"Nik krak (onomatopeia, haustearen sentimendua grafikoki adierazteko) bat sentitu nuen, nire barruan zerbait apurtu balitz bezala. Eta, gainera, kalean zoazenean eta labezomorro bat zapaltzean egiten duen zarata horrekin lotu dut beti: krak. Nik hori sentitu nuen nire barruan"*.

Frogatuta dagoen bezala, tortura ez da une bakar bat hura sufritu duten pertsonen bizitzan, hots, gertatzen den momentuan hasiera eta amaiera duen bizipen bat, baizik eta esperientzia traumatiko amaigabe bat bihurtu daiteke, bizitza osoan zehar gainean eramango duena. Sufrimendu hori, gainera, areagotu egiten da Espainiako Gobernuak zigorgabetasunez onartzen baititu deskribatutako gertaerak, ez baitu hasi erantzuleak aurkitzeko ikerketarik.

"Atxilotuak badaki polizika arrazoi politikoengatik torturatzeko duen zigorgabetasunaz, testigantzetan astakeriak entzun eta irakurri dituelako, bertsio ofizial sinesgarriak ere aditu duelako edo torturaz akusatutako guradia zibilei dominak jartzen ikusi duelako"

Al hablar de entrar en la cuestión de la falta de investigación, por la que el Estado español ya ha sido condenado en once ocasiones por el Tribunal Europeo de Derechos Humanos, también debemos subrayar la falta de acción por parte de las instancias gubernamentales españolas cuando incluso el reconocimiento de que una persona ha sido torturada es establecida de manera oficial.

Ikerketa faltaren auzian murgiltzen garenean, gogoan izanik Espainiar Estatura horregatik hamaika aldiz zigortua izan dela, azpimarratu behar dugu Espainiako gobernu-instantzien ekintzarik eza. Batez ere, pertsona bat torturatua izanaren aitortza ofiziala ematen denean.

Honekin, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako gobernu autonomikoen aldetik errekonozimendu administratiboa jasotzen ari diren kasu ugari buruz ari gara (azken urteetan biktimeei errekonozimendua ematen ari zaie, baina biktimarioa aipatu gabe), baita tortura hauek epai judizialetan errekonozitzen diren kasuei buruz. Hori da, hain zuzen ere, ondoren aztertuko dugun kasua.

4. Iratxe Sorzabalen kasua: Auzitegiak torturak aitortu arren, ondoriorik ez.

4.1. Iratxe Sorzabal Díezen atxiloketa eta tortura salaketak. Babesgabetasunaren eta diskriminazioaren kasu paradigmaticoa.

Iratxe Sorzabal Guardia Zibilek 2001eko martxoaren 30ean atxilotua zuten, Hernanin (Gipuzkoa – Euskal Herria). Guardia Zibilen dependenzian egon bitartean, Entzutegi Nazionaleko forentseak 5 aldiz bixitatu zuen. 2001eko martxoaren 31ean Madrilgo San Carlos Unibertsitate Ospitalera eraman zuten. Inkomunikazio-erregimeneko atxiloketarako ezarritako legezko gehieneko denbora amaitu ondoren (luzapenarekin), 2001eko apirilaren 4an lekualdatu zuten Instrukzioko¹⁶ 2 zenbakiko Epaitegi Zentraleko epailearen aurrean deklaratu zezan. Bertan, Guardia Zibilen dependenzietan bizitako torturak kontatu zituen. Sorzabalek azaldu zuenez, kolpeak, asfixia, deskarga elektrikoak, heriotza-mehatxuak... jasan zituen, une oro biluztasun behartua eta gorputz osoan ukituak jasatearekin batera.

Atxilotu zutenean atera eta filtratu ahal izan ziren argazkiek erakusten dutenez, Iratxeren larruazalak erredurak zituen, bateragarriak berak salatutako deskarga elektrikoekin.

¹⁶ Madrilgo Entzutegi Nazionaleko Instrukzio Epaitegi Zentrala. Terrorismo auzietarako auzitegi berezia da, eta bertan epaitzen dira euskal gatazkarekin zerikusia duten kasuak. Behin eta berriz salatu izan da egitate horrek epaile **neutralaren** eskubidearen aurka egiten duela.

Kasu hau oso ezaguna izan zen, hain zuzenere argazki hauengatik, horrelako filtrazio bat inoiz ematen ez den gertaera bat baita:



2. Instrukzio Epaitegi Zentralak lekukotza kentzeko eta izan zitezkeen tratu txarrak ikertzeko agindu zuen, eta ardura 13. Instrukzio Epaitegiak hartu zuen, 2664/2002 zenbakia duen aurretiazko eginbideekin¹⁷.

Diligentzia batzuk egin ostean, hala nola, salatzailearen deklarazioa hartzea, bere kustodia zuten Guardia Zibilen deklarazioa hartzea eta atxilotu zuteneko txosten medikoen ekarpenak aintzat hartu ostean, 2002ko martxoaren 5ean eginbideen artxiboa ebatzi zen. Honako erabaki hau Madrilgo 13. Instrukzio Epaitegian erabaki zuen, eta momentu horretan amaitu zen torturengatik aurkeztutako salaketari buruzko ikerketa guztia.

Hala ere, dagoeneko hiru epaiketa egin dira Madrilgo Entzutegi Nazionalean, Iratxe Sorzabalek bere atxiloketa inkomunikatuan sinatutako adierazpen autoinkulpatorioak direla eta. Epaiketa bakoitzean jasandako tratua eta tortura kontatu behar izan duenez, urte luzez birbiktimizazio eta esposizio publiko handia jasan behar izan du.

Kontu deigarri bat da hiru prozeduretan frogatutako berberetan oinarritutako akusazioak zeudela, eta hala ere, epai bakoitzean bildutako ondorioak ez dira norabide berean joan:

¹⁷ Atestatuaren dokumentazioa, I. Eranskina.

1.- Entzutegi Nazionaleko Zigor arloko Salaren Bigarren Sekzioko 2022ko otsailaren 18ko 1/2022 Epaia 24 urteko espetxe-zigorra ezarri zion Iratxe Sorzabal Diaz. Salak ez du tortura zantzurik hauteman: *"Aun así, en el hipotético caso de que hubiera existido torturas y que las declaraciones policiales hubieras sido efectuadas bajo las mismas, lo que sí es preciso dejar sentado es que la declaración condenatoria de la procesada no se efectúa en base a estas declaraciones policiales"*¹⁸. Epaia hau errekurritua izan zen, batetik, kasazio-errekurtso bidez espainiako Auzitegi Gorenean aurrean, eta bestetik, Konstituzio Auzitegiaren aurrean, babes-errekurtso bidez. Bi organuek Entzutegi Nazionalaren jatorrizko epaia berretsi zuten.

Prozedura honen baitan demanda aurkeztu da Giza Eskubideen Europako Auzitegian, eta epaiaren zain dago.

2.- Entzutegi Nazionaleko Zigor Arloko Salaren Hirugarren Sekzioko 8/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 2koak, Iratxe Sorzabal Diaz frogatutatik absolbitu zuten, kasu honetan ez dira aipatzen kontatutako torturak¹⁹.

3.- Entzutegi Nazionaleko Zigor Arloko Salaren Bigarren Sekzioko 13/2025 Epaia, 2025eko maiatzaren 8koak, Iratxe Sorzabal Diaz ABSOLBITU egin zuen. Bosgarren oinarri juridikoan Auzitegiak honako hau adierazi zuen:

*"existe, por lo tanto, la evidencia, más allá de cualquier duda de que, durante su detención, IRATXE SORZABAL fue sometida a la aplicación de electrodos por parte de aquellos funcionarios que la custodiaban, y ello a fin de obligarle a declarar, lo que supone una evidente vulneración de derechos fundamentales. La pericial realizada en el acto de juicio es nítida en tal sentido: las lesiones dérmicas se producen por la aplicación de electrodos, excluyendo de forma tajante otras posibles etiologías, y ello en base a la biopsia que se le practicó al ser reconocida durante su detención en el Hospital San Carlos."*²⁰

Ministerio Fiskalak epai horri Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa jarri badio ere, ez da zalantzan jartzen gertaeraren kontaketa eta aipatutako oinarri juridikoa. Are gehiago, Iratxe Sorzabal komisaldegian torturatu zutela onartzen du. Hitzez hitz, honako hau dio:

*"Ciertamente, el Ministerio Fiscal no pretende basar la petición condenatoria en función a las declaraciones policiales prestadas bajo la vulneración de los derechos fundamentales de la acusada"*²¹.

¹⁸ 2. Eranskina

¹⁹ 3. Eranskina

²⁰ 4. Eranskina

²¹ 5. Eranskina

Auzian Istanbulgo Protokoloa aplikatuta bi adituk egindako txostenak aurkeztu ziren. Adituen txosten horiek prozedura guztietan aurkeztu ziren²².

Nahiz eta ondoriozta daitekeen Iratxe Sorzabalek torturak jasan zituela hain modu esplizituan jasotzen diren epai honen bidez, ez da inolako neurririk hartu. Hain zuzen, ez da Iratxe Sorzabalen atxilotetaren inguruabarrak argitzeko egin litekeen ikerketa baterako testigantzarik hartu, ezta erantzunkizunik garbitzeko ere ez. Ildo berean, ez kasua berriro ireki, eta ez du ezta organo bakar batek ere ez neurririk hartu. Ezin dugu aipatu gabe utzi Sorzabal espetxean dagoela gaur egun.

4.2. Emakumearen aurkako Diskriminazio Guztiak Ezabatzeko Hitzarmenaren urraketa, Euskal Autonomia Erkidegoak sexu-tortura jasan duten emakumeen kasuan.

Hitzarmen honen helburua, funtsean, emakumeen aurkako diskriminazioari aurre egitea da, eta horregatik uste dugu tortura, eta bereziki tortura sexuala, genero-ikuspegitik aztertu behar dela. Emakumeak modu ezberdin batean torturatuak izan dira, eta beraz, ondorioak ezberdinak izan dira ere.

Emakumeen aurkako tortura modu ezberdinean aplikatu izan da, aiez aurretik pentsatura eta metodo zehatzekin. Horren helburua sufrimendu handiagoa bilatzea zen. Emakume horien sufrimendua, gainera, haien aurka ez ezik, parte diren komunitate osoari zuzendutako mezu bat zen ere.

Estatuak, genero indarkeria terminoarekin, emakumeek jasandako indarkeria mota espezifiko aitortzen du. Indarrean dagoen arauaren bidez²³ Estatuak bere gain hartzen du biktima babesteko ardura. Estatuak berdintasuna, giza duintasuna eta askatasuna bermatzea lehentasunezko helburutzat jotzen duen heinean, ezinbestekoa zaio eragiten dioten kasuei heltzea. Horregatik, torturaren biktima izan diren emakumeak babesteaz gain, tortura gauzatu duten funtzionario publikoak ikertu behar dira. Estatuak babes hori barne mailan eman behar du, legeetan hartutako konpromisoarengatik: Sexu-askatasunaren berme integralaren 10/2022 Lege Organikoak, sexu-askatasuna urratzen duen edozein ekintza zigortzeaz gain, Estatuak hau aitortzen du:

"Se consideran violencias sexuales los actos de naturaleza sexual no consentidos o que condicionan el libre desarrollo de la vida sexual en cualquier ámbito público o privado, lo que incluye la agresión sexual";

²² 7. eta 6. Eranskinak

²³ 1/2024 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa.

eta honela jarraitzen du:

"Las violencias sexuales vulneran el derecho fundamental a la libertad, a la integridad física y moral, a la igualdad y a la dignidad de la persona".

Kontuan hartu behar da gainera, herritar horiei aplikatzen zaien araudi autonomikoa, horietako asko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak baitira. Izan ere, 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, tortura emakumeen aurkako genero indarkeria dela ezartzen du²⁴.

Estatuak barne mailan dituen betebeharez gain, kontuan hartu behar dugu ez dituela bete nazioartean dituen obligazioak, txosten honek islatzen duen moduan. Izan ere, Estatuak CEDAWren Hitzarmena berretsi badu ere, horrek dakartzan obligazio guztian bere gain hartuz, ez du bete. Hortaz, hartutako konpromisoei kasu egin behar die, eta eman diren tratatu txarrak onartu behar ditu, demokrazia garaian baitan eman direnak ez ezik, emakumeek jasan behar izan dituzten tratatu txar espezifikoak aitortu behar ditu ere.

5. Gomendioak

Azken hilabeteetan Espainiako Gobernuari egindako gomendioen artean Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordearenak daude, azken azterketa 2023an eman zen (CAT/C/ESP/CO/7). Azken gomendioetan, espainiako Estatuari eskatzen zitzaion torturaren arloko nazioarteko gomendio eta ebazpenak aplikatzeko, atzerapenik gabe. Hortaz ain, tortura delituaren preskribaezintasuna aitortzeko beharra azpimarratzen zen. Egun hauetan informazio osagarria eskatu du orduan emandako gomendioak betetzeari buruz. Ildo beretik mintzatu zen Raul Fuentes Villota euskal herritarrek aurkeztatutako kexa indibidualaren inguruan.

Bestalde, 2025eko uztailaren 18an, espainiako Estatuari egindako azterketaren ondorioz, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak bere ondorioen txostena plazaratu zuen (CCPR/C/ESP/CO/7), non torturak gomendioetan leku nagusia izaten jarraitzen duen. Txosten horretan atxilotutako pertsonen berme eta eskubideak hobetzeko legedia aldatzea gomendatu zuten.. Era berean, Aldizkako Azterketa Unibertsalaren azken txostenean (A/HRC/60/8), iaz burututako laugarren zikloaren ondoren, estatu ezberdinek ikerketen betebeharraren betetze mailaren ondorioz, kezka erakutsi zuten.

²⁴ 1/2023 Legegintzako Dekretua martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Biktimek eskubidea dute errekonozimendurako, erreparaziorako eta ez errepikatzea bermatuko duten neurriak hartzeko. Ondorioz, delitu horiek ikertzea beharrezkoa da. Horrekin batera, saihestu behar da delitu horiek preskripzioan ezkutatzea, zigorgabetasun-geruza batez estaltzeko. Biktimek auzitegietara jotzeko aukera izan behar dute, justizia eta egia jakiteko eskubidea bilatzeko. Tortura-delituaren izaera preskribaezina txostenetan adierazten denean Espainiar Erresumari erreferentzia zuzena egiten zaio. Ondorioz, preskribaezintasunak isla izan behar du barne eta nazioarteko legedian, modu esplizituan. Hori horrela, preskribaezintasunaren aplikazioa errealia eta zuzena izatea bermatu behar da.

6. CEDAWari zuzendutako eskaerak

1.- Nazioarteko konpromisoei erantzunez, Espainiako Gobernuak tortura-kasuan dagozkion ikerketak egin behar ditu, bereziki sexu-indarkeriaren biktima diren emakume atxilotuei dagokionez.

2.- Estatuak Estatuaren indarkeriaren biktimak aitortzeko ekimen legegileak hartu behar ditu, eta tortura delituaren preskribaezintasuna jaso bere barne legedian.

3.- Atxilotze inkomunikatua ahalbidetzen duen Espainiako Prozedura Kriminalaren Legearen 509. artikulua. Frogatuta dago atxilotze hori torturarekin eta atxilotutako pertsonen aurkako tratu txarrekin estuki lotuta dagoela. Honek ez errepikatzeko printzipioari erantzungo lioke.

4.- Tortura ekintzen ondorioz lortutako frogetan oinarritutako kartzela zigorra betetzen jarraitzen duten dozenaka pertsonen kondenak berrikusi behar dira. Ildo horretan, Iratxe Sorzabalen kasuari buruzko jakinarazpen espezifikoa eskatzen zaio CEDAWri.

5.- Eskatzea tortura-delituaren preskribaezintasuna nazioarteko betebeharrak eta konpromiso gisa berariaz jaso dadila, estatuarentzat hura betetzea saihestezina izan dadin eta delitua egin dutenen zigorgabetasuna ahalbidetzen duen argudio gisa erabili ez dadin.